

Ikurrinaren lehen martiria

Euskaldunon Egunkaria, 1995-08-01: 2.

Sabin Arana-Goirik lehen alderdi abertzalea sortu zuela ehun urte betetzen dira gaur, 1995eko uztailak 31, San Inazio eguna; baina urtebete lehenago izan zuen bere taldeak aurreneko aretoa Bilboko Correo kalearen 22an, eta hemen zabaldu zuten lehenbizikoz ikurrina, 1894ko uztailak 14 zituela. EAJren sorrera aurretiko hau aipatu nahi dut, hain zuzen. Ez zen oraindik lehen urratsa baizik, baina honen eraginaz hurrengo egunean bildu ziren 50 lagun, Sabin buru zutela, eta Euskal Herriko zazpi lurraldeak biltzen zituen konfederakuntza aipatu zen; Araba, Baxenafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nabarra eta Zuberoa, denak eskubide eta betebeharrak berdinekin, eta euskera izango zen hizkuntza ofiziala. Baina batez ere esandako ikurrinaren lehen hegada da orain garrantzia duena, eta txoria, zeren garrantzi handia zuten arazoak apaltasun handiz ari ziren gizon berriak lantzen, eta taldeko norbaitek ikurrinaren egunari poza ematearren txori abeslari bat ekarri zuen etxetik Bilboko lehen Batzoki honetara. Ez dut efemeride hau inoiz inon irakurri, baina Bilboko zaspikaletakoren batek esaten zidan, kasualki atzo, bere aitagandik jasotakoa duela. Bitxia, ez txoriaren kantua lagun izan zutelako, baizik eta ikurrina lehen aldiz jaso zuten Batzokia salaketapean klausuratu zuten bezala, lege zigiluz itxi zutenean, abertzale zen norbaitek asmo onarekin eraman zuen txoria beste norbaitek utzi zuen itxituraren beste aldeko bakardadean eta berton hil zen.